



ADMINISTRAZIO-KLAUSULA PARTIKULARREN AGIRIA, 2026AN BBUPKO LANGILEENTZAKO ETA LAGUNTZAILEENTZAKO ELIKAGAI-PRODUKTUAK HORNITU ETA BANATZEKO KONTRATUA EGITEKO. ESPEDIENTE-ZK.: 3314

Erregulazio harmonizatuko kontratua	☐ BAI ☒ EZ
Espedientearen izapidea	☒ Ohikoa, ☐ Premiazkoa, ☐ Larrialdia, ☐ Aurreratua
Mota	☒ Irekia ☐ Irekia eta sinplifikatua (SPKLren 159.1. art.) ☐ Irekia eta oso sinplifikatua (SPKLren 159.6. art.)

A.- BOTERE ADJUDIKATZAILEA

1.- Botere adjudikatzailea:	Consortio de Aguas Bilbao Bizkaia/ Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoa
2.- Kontratazio-organoa:	☐ Zuzendaritza Batzordea ☐ Presidentea ☒ Gerentea
3.- Kontratuaren arduraduna:	María Victoria Sedano Ugarte
4.- Kontratazio Zuzendariordetzaren harremanetarako datuak:	contratacion@consorciodeaguas.eus Kontsulta administratiboak/teknikoak: Tel. 94 4873100
5.- Kontratatzailearen profila:	www.consorciodeaguas.com www.contratacion.euskadi.eus

B.- KONTRATUAREN XEDEA

1.- Kontratuaren xedea: Kontratu honen xedea da 2026an BBUPko langileentzako eta laguntzaileentzako elikagai-produktuak hornitu eta banatzea. 2.- Bete beharreko premiak: BBUPko langileen lan-harremanak arautzen dituen hitzarmen kolektiboak ezartzen duenez, Gabonetako jaien harira, Partzuergoak sasoi horretako produktuak oparituko dizkie jardunean dauden langileei eta langile erretiratuei. 3.- Lotetan banatzea: ☒ Bai ☐ Ez Loteen deskribapena: 1. lotea: Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoaren Hitzarmen Kolektiboa 2. lotea: Erakundeen arteko lankidetzaren sorta.
4.- CPV: CPV kodea: 15000000-8 Deskribapena: Janaria, edaria, tabakoa eta antzeko produktuak.
5.- Aldagaiak edo alternatibak onartzea: ☐ BAI ☒ EZ Onartzeko baldintzak eta aldatu edo aukeratu daitezkeen elementuak: Ez da aplikatu behar
6.- Izaera juridikoa: ☒Administratiboa ☐ Pribatua



C.- KONTRATUAREN PREZIOA

1.- Lizitazio-aurrekontua
(BEZa barne)

EHUN ETA ZAZPI MILA SEIEHUN ETA HOGEITA BOST EURO ETA HOGEITA HAMAR ZENTIMO (107.625,30 €).

1. LOTEA: 98.794,80 euro(BEZa barne)

Gehieneko unitateko-prezioa: 126,66 €
Kalitate-prezio erlazioa kontuan hartuta, eta horrenbestez, eskatutako kalitate-estandarrak betetzen dituzten produktuen egungo merkatu-balioa aintzat hartuta, ez da onartuko 1. loteko hiru aukeretako bakar batean ere 114,25 eurotik beherako (BEZa barne) saskiaren unitateko-preziorik.

Unitateko-prezio bakarra aurkeztuko da hiru modalitateetarako.

Zenbatesten da gehienez 780 unitate kontsumituko direla (kopuru hori orientagarria da).

2. LOTEA: 8.830,50 euro(BEZa barne)

Gehieneko unitateko-prezioa: 60,90 € (BEZa barne).

1. lotean bezala, produktuen kalitatea baloratuko denez, gutxieneko prezioa ezin izango da 55,27 eurotik beherakoa izan (BEZa barne).

Gehienez 145 unitateko kontsumoa aurreikusten da (kopuru hori orientagarria da).

Esleipena egin ondoren, Partzuergoak zehaztuko du 1. loteko A, B eta C aukeretako bakoitzetik zenbat unitate hornitu behar diren, bai eta 2. loteko unitate-kopurua ere, entregatu beharreko opari guztien kopurua osatu arte.

2.- Kontratuaren balio zenbatetsia: 97.841,18 euro (BEZik gabe)

Loteak:

☒ BAI

☐ EZ

Loteen balio zenbatetsia:

1. lotea: 89.813,45 euro (BEZik gabe)

2. lotea: 8.027,73 euro (BEZik gabe)

3.- Prezioa zehazteko sistema:

☐ Honenbesteko prezioa

☒ Unitateko-prezioak

4.- Urteko kopuruak eta aurrekontu-kontsignazioa:

Hauek dira kontratuaren aurrekontuaren urteko zenbatekoak eta kontratuaren gastuaren aurrekontu-aplikazioa:

1. lotea:

URTEA: 2026ko PARTIDA: 92.003.226.02 ZENBATEKOA: 35.971,44 € (BEZa barne)

URTEA: 2026ko PARTIDA: 92.001.130.01 ZENBATEKOA: 46.230,90 € (BEZa barne)

URTEA: 2026ko PARTIDA: 92.001.131.01 ZENBATEKOA: 16.592,46 € (BEZa barne)

2. lotea:



C.- KONTRATUAREN PREZIOA

URTEA: 2026ko PARTIDA: 92003.22602 ZENBATEKOA: 8.830,50 € (BEZa barne)

5.- Prezioak berrikustea:

☐ BAI

☒ EZ

6.- Kanpoko funtsekin finantzatzea:

☐ BAI ☒ EZ

7.- Ordaintzeko modua: Hileko ziurtagiriak.

8.- Ordainketak kontura: Ez

D.- KONTRATUAREN EPEA

1.- Iraupen osoa

Kontratu honen iraupena bi hilabetekoa da.

Sortak 2026ko abenduaren 14, 15 eta 16an emango dira.

Aipatutakoez bestelako entrega-datak ere adostu ahal izango dira enpresa adjudikaziodunarekin, betiere data horiek aurrekoak badira.

Merkantzia lantokietan entregatzeko ordutegia bat etorriko da haien irekiera-ordutegiarekin, eta aldez aurretik adostu beharko da kontratuaren arduradunarekin. Banaketa-puntuko entrega-ordutegia baloratuko da: gutxieneko ordutegia 10:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 20:00etara izango da. Etxez etxeko bidalketen kasuan, entrega egiten bi aldiz huts eginez gero, produktuak ordezeko banaketa-zentroan jaso beharko dira. Banaketa-zentro hori, gutxienez, Bilbon edo mugakide den udalerri batean egon beharko da.

Akastunak edo hondatuta dauden produktuak ordezteko gehieneko epea bi lanegunekoa izango da.

Adjudikaziodunari produktuak jasoko dituzten pertsonen zerrenda emango diote. Produktuak jasoko dituzten pertsonak behar bezala identifikatu beharko dute euren burua, hauen bidez: BBUPren identifikazio-txartela, NANA, pasaporte, gidabaimena edo, beste pertsona baten izenean sorta jaso ahal izateko, dagokion baimen-agiriaren bitartez.

Adjudikaziodunak produktuen bilketei buruzko txostena aurkeztu beharko dio BBUPri. Txosten horretan argi identifikatu beharko dira produktuak jasoko dituzten pertsonen datuak. (Izena, bi abizen eta NANA).

2.- Epe partzialak:

☐ BAI ☒ EZ

3.- Luzapena:

☐ BAI ☒ EZ

4.-Berme-epea: Bi hilabete

5.- Kontratua gauzatzeko tokia: Entrega preskripzio teknikoen agiriak esaten duen lekuan izango da.

6.- Partzialki jaso daitezkeen lanak: ☐ BAI ☒ EZ.

E.- BERMEAK

☒ Behin betiko bermea: % 5

Zenbatekoa: Adjudikazioa

☐ Berme osagarria:

Zenbatekoa:



F.- KAUDIMEN EKONOMIKOA EDO FINANTZARIOA

Urteko negozio-bolumena: amaitutako azken hiru urteetako negozio-bolumen handieneko urteari dagokio, eta kontratuaren batez besteko urteko kuota halako bat izan beharko da gutxienez.

G.- KAUDIMEN TEKNIKO ETA PROFESIONALA

Azken hiru urteetan emandako hornidura nagusien zerrenda, kontratu honen xede direnen berberak edo antzekoak, eta gauzatze handieneko urtean haien zenbateko metatua urteko kontratuaren batezbesteko urteko kopuruaren % 70 edo gehiago izatea.

☒ Enpresa sortu berrien kaudimen teknikoak:

Kaudimen tekniko eta profesionalean eskatzen den esperientzia ez da kontuan hartuko kasu horietan. Bai, ordea, gainerako eskakizunak.

ENPRESA-SAILKAPENA

ENPRESA-SAILKAPENA ☐ Bai, Hautazkoa ☒ Ez

H.- LIZITATZAILEEK ENTREGATU BEHARREKO DOKUMENTUAK

1.-1. gutun-azala: Erantzukizunpeko adierazpena.

2.-2. gutun-azala: Balio-judizioen menpeko irizpideei buruzko dokumentuak.

3.-3. gutun-azala: Automatikoki kuantifikatzen diren irizpideen dokumentuak.

BALIO-JUDIZIOEN MENPEKO IRIZPIDEEI BURUZKO DOKUMENTUAK

Enpresa lizitatzailleek 1. lotea (A, B eta C aukeretan) eta 2. lotea osatzen duten produktuen zerrenda aurkeztu beharko dute, bai eta produktuen kalitatea justifikatzen duen dokumentazioa ere, pleguan adierazitako irizpide tekniko baloragarrien arabera.

Enpresa lizitatzailleek kontratuaren loteei lotutako sorten lagin bat aurkeztu beharko dute, 1. lotean hiru modalitate aurreikusten direla kontuan hartuta.

Laginak kontratatzailearen profilean argitaratutako eskaintzak aurkezteko epea amaitu baino lehen aurkeztu beharko dira, helbide honetan: Albia I eraikina, 4. solairua, Done Bikendi kalea 8, 48001 Bilbo (Bizkaia).

Adjudikaziodunak datu pertsonalen tratamenduari buruzko klausulak eta zinpeko adierazpena (1. eranskina) sinatu beharko ditu.

Klausulak 1. eranskinean.

ESKAITZA BAZTERTZEKO EZ-BETETZE TEKNIKOAK

- Pleguari egokitzen ez den eskaintza bat aurkeztea.
- Ez betetzea plegu horietan derrigorrez eskatzen diren puntuetako bat.
- Eskaintza ekonomikoak lizitazioaren gehieneko tasaren muga gainditzea.



AUTOMATIKOKI KUANTIFIKATZEN DIREN IRIZPIDEAK

Eskaintza ekonomikoa. Lizitatzailleak edo bere ordezkariak sinatuta egon beharko da eta zehatz eta mehatz idatzita egon beharko da I. eranskineko ereduari jarraikiz. Eskaintako prezioan zerga guztiak barne egon beharko dira, BEZa izan ezik.

Multzo (lote) bakoitzaren unitateko-prezioa (BEZa barne), adjudikaziodunak bere gain hartu beharreko garraio-gastuak eta kontratatutako prestazioak behar bezala betetzeko egin beharreko gainerako gastu guztiak barne.

Banaketa adjudikaziodunaren kontura egingo da bai banaketa-puntuan bai etxeetan. Lantokiei dagokienez, BBUPk lokalak jarriko ditu adjudikaziodunaren eskura horretarako. Arrigorriagako eta Sestaoko lantokietan, adjudikaziodunak banaketa egiteko langileak jarri beharko ditu.

LOTE bakoitzerako aurreikusitako gehieneko unitateko-prezioak hauek dira:

1. LOTEA:

Gehieneko unitateko-prezioa: 126,66 €

Kalitate-prezio erlazioa kontuan hartuta, eta horrenbestez, eskatutako kalitate-estandarrak betetzen dituzten produktuen egungo merkatu-balioa aintzat hartuta, ez da onartuko 1. loteko hiru aukeretakoa bakar batean ere 114,25 eurotik beherako (BEZa barne) saskiaren unitateko-preziorik.

Unitateko-prezio bakarra aurkeztuko da hiru modalitateetarako.

Zenbatesten da gehienez 780 unitate kontsumituko direla (kopuru hori orientagarria da).

2. LOTEA:

Gehieneko unitateko-prezioa: 60,90 € (BEZa barne).

1. lotean bezala, produktuen kalitatea baloratuko denez, gutxieneko prezioa ezin izango da 55,27 eurotik beherakoa izan (BEZa barne).

Gehienez 145 unitateko kontsumoa aurreikusten da (kopuru hori orientagarria da).

Adjudikaziodunaren kontura izango dira bere jarduera gauzatzean langileen joan-etorriek eragindako gastu guztiak.

Eskaintako prezioa kontratakoa dela ulertuko da. Beraz, haren barruan sartuta egongo dira irabaziak, gizarte-kargak, gastu orokorrak, zergak eta gainerako gastu guztiak.

Era berean, eskaintako prezioaren barruan sartuta egon beharko dira logistika-gastuak ere (jasotzeko guneeetan edo lantokietan jartzea edo banatzea).

I.- ESKAINTZAK EGITEKO LEKUA ETA EPEA

1.- Eskaintzak egiteko epea: Kontratatzaillearen profilean adierazitakoa

2.- Eskaintzak aurkezteko lekua (bakarrik administrazio-klausula partikularren agiriaren 13. klausulan xedatutakoa ez bada):

3.- Eskaintzak elektronikoki aurkeztea ☒ BAI ☐ EZ

Eskaintza elektronikoak aurkezteko plataforma elektronikoaren helbidea:

<https://contratacion.consorciodeaguas.eus/site/3?language=eu>

J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Kontratazio-mahaia

Mahaiburua:



J.- KONTRATAZIO-MAHAIA EDO ADITUEN BATZORDEA

Ekaitz Mentxaka Corral jauna.

Mahaikideak:

Mikel Magunazelaia Pinaga jauna.

Xabier Orue Moro jauna.

Itziar Zarate Urrutia andrea.

Gerardo Latorre Pedret jauna.

Jose Manuel Pereda Renobales jauna.

Idazkaria:

Gerardo Latorre Pedret jauna.

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Hauek dira baloratzeko alderdi gisa lehiaketa adjudikatzeko oinarritzat erabiliko diren irizpideak:

AUTOMATIKOKI ZENBATZEN DIREN IRIZPIDEAK 50 PUNTU

Irizpide horri dagokionez, gehienez 50 puntu lor daitezke.

Eskaintzarik merkeenari emango diote puntuaziorik handiena, eta gainerako eskaintzen puntuazioa kalkulatzeko, formula hau erabiliko da: eskaintza ekonomiko txikienaren eta baloratzen den lizitatzaillearen eskaintzaren arteko zatiduraren emaitza irizpideari aplikagarri zaizkion puntu guztizko kopuruarekin biderkatzea.

Hau da:

$(Ob / OI) \times z$

Non:

Ob = eskaintza ekonomiko txikiena

OI = baloratzeke dagoen lizitatzaillearen eskaera

z = irizpide honi aplikagarri zaizkion puntu guztiak.

BALIO-JUDIZIOEN MENDE DAUDEN IRIZPIDEAK 50 PUNTU

Sorten **kalitatea** baloratuko da irizpide hauek kontuan hartuta:

- Produktuaren gutxieneko kalitate-estandarra bermatzen duten prozeduren bidez ekoitziak izatea, hala nola hurbileko ekoizpenekoak edo Babestutako Jatorri Deitura (BJD), Adierazpen Geografiko Babestua (AGB), Bereztasun Tradizional Bermatu (BTB) edo antzeko bereizgarriak dituzten produktuak. **10 PUNTU**
- Ingurumenarekiko errespetuzko edo ekoizpen ekologikoko prozeduren bidez ekoitziak izatea, hala nola Europar Batasunaren etiketa ekologikoa edo antzeko bereizgarriak dituzten produktuak. **6 PUNTU**
- Animalien ongizatea kontuan hartzen duten abeltzaintza-jardunbideen bidez ekoitziak izatea. **5 PUNTU**
- Bidezko merkataritzako irizpideen arabera merkaturatuak izatea, hala nola "Fairtrade" zigilua edo antzeko bereizgarriak dituzten produktuak. **5 PUNTU**
- "Gourmet" edo goi-mailako produktutzat jotzea: **10 PUNTU**
- Ingurumenarekiko errespetuzko prozeduren bidez ekoiztako ontziak erabiltzea, hala nola baso-kudeaketa jasangarritik datorren zura. **5 PUNTU**

K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

- Ekoizpen-lekuaren eta kontsumo-lekuaren arteko distantzia izatea, produktuen garraio-distantzia murrizteko eta, horren ondorioz, produktuaren kalitatea, BEGen emisioak eta CO2 emisioak hobetzeko eta ingurumen-inpaktua murrizteko. Baloratuko dira hurbileko produktuak edo 0 km-ko produktuak direla adierazten duten etiketak dituzten produktuak. **3 PUNTU**
- Zerbitzu-kalitatea hobetzea. Baloratuko da banaketa-puntuaren irekiera- eta itxiera-ordutegiak hobetzea. **4 PUNTU**
- Kalitateari buruzko bestelako irizpide teknikoak: **2 PUNTU**

Gastronomiaren edo kalitatearen arloko sariren bat jaso duten produktuak baloratuko dira, hala nola Nekazaritza eta Arrantza Ministerioak sustatutako Espainiako elikagaien sariak, Euskal Gastronomia Akademiaren sariak edo antzeko erakundeek emandakoak.

B modalitatean, **kalitatea** lehenetsiko da produktu-kopuruaren edo aniztasunaren gainetik.

Era berean, A modalitatean, eskaintzen diren produktuen **aniztasuna eta kopurua** lehenetsiko dira.

2.- Berdinketak hausteko irizpideak:

Eskaintzen arteko berdinketak hausteko ordena honetan aplikatuko dira gizarte-irizpideak, zehazki, eskaintzak egiteko epean indarrean daudenak:

- a) Enpresak desgaitasuna duten edota gizarte-bazterketa egoeran dauden langileen ehuneko handiagoa edukitzea; berdinketaren kasuan, lehentasuna izango dute plantillan desgaitasuna duten langile finko gehiago dutenek edota gizareratze-egoeran dauden langileen kopuru handiagoa dutenek.
- b) Enpresako langileen artean aldi baterako kontratuen ehuneko txikiena duena.
- c) Enpresako langileen artean emakume enplegatuen ehuneko handiagoa izatea.
- d) Zozketa, aurreko irizpideak aplikatuta berdinketa hautsi ez bada.

3.- Ohi baino txikiagoak diren eskaintzak kontuan hartzeko irizpideak:

Eskaintza bat ohi baino txikiagoa izango da kasu hauetakoren bat betetzen denean:

- Lizitatzaille bakarra izanik, lizitazioaren oinarritzko aurrekontua baino 25 ehuneko-puntu txikiagoa denean.
- Bi lizitatzaille izanik, beste eskaintzaren aldean 20 ehuneko-puntu txikiagoa denean.
- Hiru lizitatzaille daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 20 ehuneko-puntu baino gehiagotan txikiagoak direnak. Hala eta guztiz ere, alde batera utziko da batez bestekoa kalkulatzeko eskaintzarik garestiena, batez bestekoa kontuan hartuta 10 ehuneko-puntu baino handiagoa bada, eta bakar-bakarrik ausarkeria-atalase berria ezartzeko ondorioetarako. Inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Nolanahi ere, neurritz kanpokatzen joko da aldea 25 ehuneko-puntu baino handiagoa bada.
- Lau lizitatzaille edo gehiago daudenean, aurkeztutako eskaintzen batezbesteko aritmetikoarekiko 10 ehuneko-puntu baino txikiagoak direnak. Dena den, horien artean batezbestekoa baino 10 ehuneko-puntu handiagoak diren eskaintzak badaude, batezbesteko bat kalkulatu da, bakarrik ustezko horretan ez dauden eskaintzekin. Kalkulu horren xede bakarra izango da ausarkeria-atalase berri bat ezartzea, eta inolaz ere ez dio eragingo ezarritako sailkapen-ordenari. Edonola ere, gainerako eskaintzen kopurua hirutik beherakoa bada, batezbesteko berria hiru eskaintza merkeenak erabiliz kalkulatu da.

Talde berekoak diren enpresek eskaintzak aurkeztu dituztenean, txikiena hartuko da kontuan, ustezko anormaltasuna dakarten eskaintzak identifikatzeko araubidea aplikatzeko, kontuan hartu gabe eskaintza bakarka aurkeztu duten edo taldearekin zerikusirik ez duen beste enpresa batekin edo batzuekin batera, haiekin aldi baterako enpresa-elkarte baten bidez egin badute.

4.- Lizitatzailleak hautaketa-prozesuan jarraitzeko beharrezko gutxieneko atalasea:



K.- ADJUDIKAZIO-IRIZPIDEAK

Prozesutik kanporatuko dira eskaintzaren balorazio teknikoan gutxienez **25** puntu eskuratzen ez dituztenak.

L.- KONTRATUA BETETZEKO BALDINTZA BEREZIAK

Preskripzio tekniko partikularren pleguan adierazitakoak.

M.- ZIGOR ESPEZIFIKOAK

Preskripzio tekniko partikularren pleguan adierazitako kasuak eta ekintzak.

N.- ADJUDIKAZIODUNAK AURKEZTU BEHARREKO ERANTZUKIZUN ZIBILEKO ASEGURUA

Lizitatzailleak laneko arriskuengatik erantzukizun-asegurua baduela ziurtatzen duen egiaztagiria.

Ñ.- KONTRATUA ALDATZEA

Hizpide dugun kontratua aldatu ahal izango da, hasierako aurrekontuaren gehienez % 2raino, plantilla handitu edo murriztu daiteke eta.

O.- AZPIKONTRATATZEKO AUKERA

☒ Hasierako ekarpenaren obligazioa

P.- SUBROGAZIOA

Ez

Q.- ERREKURTSO BEREZIA

☒ BAI

☐ EZ

KONTRATUAREN IRAUNALDIAN BETETZEKO BALDINTZAK

Adjudikaziodunak bermatu beharko du zerbitzuaren kalitatea eta ezarritako epeak betetzen direla du. Adjudikaziodunak (gehienez bi laneguneko epean) ordeztu beharko ditu entregatutako elikagai-produktuen multzoetako hondatutako edo egoera txarrean dauden produktuak, eta adierazitako helbidean entregatu.

Entregatu beharreko unitate bakoitzean hura osatzen duten produktuen zerrenda jaso beharko da, ele bitan (euskaraz eta gaztelaniaz) eta paper birziklatuan inprimatuta, adjudikaziodunari emandako ereduaren arabera.

Adjudikaziodunak bete beharko ditu agirietan sortak osatzen dituzten produktu guztietarako ezarritako kalitate-baldintzak.